

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MARIETA-LARRINTZARKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Kontzejuaren etxebizitza bat errentan ematea

Marieta-Larrintzarko Kontzejuak, urriaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen bere jabetzako etxebizitza baten errentamendua adjudikatzeko prozedura hastea eta dagokion baldintza ekonomiko administratiboen agiria onestea.

1. Erakunde adjudikatzailerak: Marieta-Larrintzarko kontzejuak.

2. Xedea:

a) Kontratu mota: kontratu pribatua.

b) Deskribapena: Marieta-Larrintzarko Administrazio Batzarrarena den eta Barrundiako udalerriko 1 poligonoko 1179 katastro lurzatiko G azpilurzatian, Eskorta kaleko 1. zenbakian, dagoen higiezia errentan ematea, etxebizitza gisa erabiltzeko.

3. Eskatzaileen betebeharrak: adinduna edo adingabe emantzipatua izatea, gaitasun juridiko osoa eta jardutekoa izatea, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 71. artikuluan kontratatzeko xedatutako debekuren bat ez izatea, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa izatea.

4. Kontratuaren iraupena: bost urte, luzatzeko aukerarekin.

5. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

Dokumentazioa:

Barrundiako Udalaren bulegoetan (Boilar kalea 12, 01206 Ozeta), astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko orduetan (10:00-14:00), hamabost egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, edo kontzejuko lehendakariarekin harremanetan jarrita:

Jesus Brizuela Aguayo, 656710194 mugikorra. Helbide elektronikoa: marietalarrintzar@ja.araba.eus.

Argibideak:

Baldintzen agiriari eta etxebizitzari buruzko informazioa nahi izanez gero, jarri harremanetan:

Jesus Brizuela Aguayo, 656710194 mugikorra. Helbide elektronikoa: marietalarrintzar@ja.araba.eus.

6. Eskaintzak aurkezteko epea:

Eskaintzak Barrundiako Udalaren bulegoetan (Boilar kalea 12, 01206 Ozeta) aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko orduetan (10:00-14:00), hamabost egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Azken egun hori larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduneara ere aurkeztu ahal izango dira eskaintzak.

7. Fidantza:

Ez da eskatzen behin-behineko bermerik.

Behin betiko fidantza: bi hilabeteko alokairua.

8. Lizitazio oinarria:

Oinarritzko errenta edo lizitazio tasa urtean sei mila (6.000,00) eurotan eta hilean gutxieneko errenta bostehun (500,00) eurotan finkatzen da. Lizitatzailleek gehiago eskainita hobetu ahal izango dute eskaintza.

9. Adjudikatzeko irizpideak:

Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoaren arabera egingo da esleipena. Irizpide osagarri gisa, eta berdinketa gertatuz gero, Marieta-Larrintzar erroldan erroldatuta egotea eta Marieta-Larrintzar udalerrian erroldatutako pertsonekin familia harremana izatea baloratuko da, guztizko puntuazioaren ehuneko 10 gainditu gabe.

Adierazitako adjudikazio irizpideak erabilita bi lizitatzaille edo gehiagoren artean berdinketa badago, zozketa bidez ebaztuko da esleipena.

10. Eskaintzak irekitzea:

B gutun azalaren (eskaintza ekonomikoa) eskaintzak jendaurrean irekiko dira Marieta-Larrintzarko kontzeju aretoan (Uriko kalea 11), eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo igandean, 13:00etan. Adierazitako egunean eta orduan irekitzerik ez badago, behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaie lizitatzaillei zein egun eta ordutan irekiko diren.

Marieta-Larrintzar, 2026ko martxoaren 2a

Lehendakaria

JESÚS BRIZUELO AGUAYO